



SAISON CULTURELLE

Kultur denboraldia
Théâtre | Musika | Cirque | Dantza

Honako ikuskizun hauekin lotu formakuntza: *On est là tout va bien* eta *Mue* (FR)

Eskuhartzaileak:

- Miren Lassus Olasagasti
- Aurélie Armellini

Bitartekariak/ *Les Araignées Philosophes* elkarteak

Rouge ELEA konpainiaren *On est là tout va bien* eta *Petit Théâtre de Pain* konpainiaren *MU.e* ikuskizunen inguruan, *Les araignées philosophes* elkartearen bitartekariak irakasleentzako formakuntza aldi bat proposatzen dute.

Hiru orenetako formakuntza aldi horrek *Les araignées philosophes* elkartearen bitartekarien jarrera profesionala ezagutzeko aukera emanen die irakasleei, bai eta bitartekaritza tresnak esperimentatu eta bereganatzeko eta goian aipatu bi ikuskizunen inguruko ibilbide gogoetatu eta sortzailea asmatzeko ere.

Bitartekariak asmatu bitartekaritza tresnak formatu digitalean transmitituko dira. Irakasleak eta gazteak artelanarekin topatzean lagungarri gerta dakizkien pentsatuak dira. Topatu diren artelanak nor bakoitzaren eta guzieren bizitzekin, bizitzarekin eta munduarekin harremanetan eta ados jartzea bilatzen duen gogoetatze eta sortze joko multzo batez osatuak dira.

On est là, tout va bien eta *MU.e*, obren inguruan proposatu joko edota ariketa oro honako hitz hauek xeheki behatzeko aukera izanen da: GAZTAROA, DISTOPIA/UTOPIA, GU, POZA, IZATEA eta MUNDUA.

Formakuntzaren aldia joko bakoitza ezagutu eta esperimentatzeko erabiliko da, irakasle bakoitzak bere gogoeta eta sorkuntza ibilbidea urte osoan zehar pentsa ahal dezan. Bibliografia emanen zaie irakasleei, landu diren hitzen inguruko beste arte eta literatura obrekin sarean jarri ahal izateko.

Erran dezagun ere *Les araignées philosophes* elkartearen bitartekariak serio-serioski jokatzeko dutela gustuko edo jokatzeko serio-serios izatea. Ulertzeko, ez duda egin eta webgune honetara joan zaitez: <http://araigneesphilosophes.com>

2021eko abenduaren lehenean, asteazkenarekin
14:00etatik 17:00etara
Harri Xuri aretoan - (errepide nagusia - 64250 Luhuso)